



*Ekitaldi honetan
egingo diren
hobekuntza
lanak*

/3. orrialdea

*Antsietatea
kontrolatzeko
programa
aitzindaria*

/2. orrialdea

*Turismoa
aktibatzea:
Muñatonesen
bisitak*

/4. orrialdea

*Udalerrian
hiri-zirkulazioa
berrantolatzeko
neurriak*

/5. orrialdea

*Muskiz Areto
Futbola kluba*

/6. orrialdea

Editoriala

Lidergoa hartzea, Muskizek aurrera egin dezan

Bizitza honetan ezinbestekoa da aurrera eraman nahi diren proiektuak, ideiak eta gogoak edukitzea, baina proiektuak edukitzea bezain garrantzitsua da porrot egiteko beldurrik ez izatea. Gauzak aurrera egin eta hobetu daitezten, norbaitek lidergoa hartu behar du bere gain, eta horrek asmatzea eta huts egitea dakar. Egunik egun hainbat erabaki hartzen ditugu, eta erabakirik txarrena hartzen ez dena da.

Norbaitek zerbait eraldatzeko –herri bat, enpresa bat...- erantzukizuna bere gain hartzen badu, arrakasta izango duela pentsatu behar du, aholkatu dezaten utzi behar du, entzun egin behar du, eta, ondoren, erabaki.

Udal gobernuan urtebete egon ondoren, pozik ikusten dut Muskizek bere eraldaketa hasi duela, udalerrri modernoagoa eta irisgarriagoa izateko. Helburu hori lortzeko lan egiten dugun pertsona guztien ahalegina eta partaidetza, udal-kideena, funtzionarioena, auzokideena eta elkarteena, gero eta agerikoagoa egiten ari da, ekarpenak egin nahi izan dituzuen guztion ideien bitartez. Halaber, udal taldeak, ideioek lehenetasunen arabera sailkatu ondoren, erabakiz, zintotasunez eta gardentasunez abiarazi ditu.

Gidatzen duten udal gobernu taldeak Muskizen alde egiten du, eredu propio batekin. Herri moderno, berritzailea eta turismoari begirakoa, ehun industrial mantentzeko lan egiten duena eta ikerketa eta garapenera bideratutako enpresa berriak hemen kokatzea nahi duena. Udalerrri atsegina gura dugu auzokideentzat.

Muskizek orain bertan egin behar duena da barrura begiratzea eta bere abantaila (asko dira), originaltasunari eta gaitasunei etekina ateratzea. Horretan dihardugu, maila guztietan, gainera. Gure ilusioa da beste udalerrri batzuek guri begiratzea, ispilu bat izango bagina bezala; izan ere, horrela izaten da beste alderdi batzuetan ere. Modu horretan, egunero gure buruari eskatzen diogunaren maila igokiko dugu.

Borja Liaño Abarrategi
Muskizko alkatea



Muskizek Antsietatea Kontrolatzeko programa aitzindarian parte hartuko du

Muskiz da Antsietatearen Kontrolatzeko programa gauzatzeko hautatu duten udalerrri bakaretako bat. Programa antsietatearekin edota depresioarekin lotutako desorekei aurre egiteko psikofarmakoak erabili dituzten emakumeei zuzenduta dago.

Ekintza hau Autonomia Erkidegoko hiruzpalau udalerritan egingo da, eta Eusko Jaurlaritzak diruz laguntzen du. Iraila eta abendua bitartean gauzatuko da, eta medikatzan ari diren emakumeei zuzenduta dago, estresarekin eta antsietatearekin lotutako desorekak tratatzeko.

Bi dira programa honekin lortu nahi diren helburuak. Lehenengoa, antsietatea eta

estresa tratatzeko terapia alternatiboen ondorioei buruzko ikerketa lana egitea. Bigarrena, medikazioa psikofarmakoekin saihesteko aukera eskaintzea, antsiolitiko arinak kasu, gaixotasun bi hauen sintomak arintzeko.

Programa honen bitartez, emakumeek euren gaitasun sozialak garatzea ahalbidetu nahi da, pertsonen arteko mugak maneiatzeko –batez ere, ezetz esateagatik errudun sentitu barik-. Programa honek jorratuko duen hirugarren alderdia antsietatearen ezaugarrietan prestakuntza jasotzea izango da, bai eta psikofarmakoekin egindako tratamendua eta medikamentu horien kontsumoan eragiten duten faktore erabakigarriak aztertzea ere.

Lan egin euskaraz

Euskara zerbitzuak hainbat lan poltsa sortu ditu umeak zaintzen dituztenentzat, eskola partikularrak ematen dituzten irakasleentzat, kirol eta aisialdiko begiraleentzat, betiere, euskaraz ari direnei zuzenduta. Ekimen honen bitartez, helburu bikoitza lortu nahi da: euskarazko lanpostuak sortzea eta herriko bizilagunei profesional euskaldunen bilaketa erraztea.

Lan poltsetan izena eman gura dutenek Euskara Zerbitzura jo beharko

dute, zehaztasun guztiak jasotzen dituen curriculumarekin, izaera pertsonaleko datuen tratamendurako eta kudeaketarako formularioa betetzeko. Lan poltsa hauetan parte hartuko duten profesionalak ez dute euskararen ezagutza mailari buruzko probarik egin beharko.

Udalak bitarteko gisa jardungo du hizkuntza eskakizunak dituzten profesionalen kontratazioa sustatzera bideratutako ekimen honetan.

Zenbait hobekuntza lan egiteko zenbatekoa esleitu da

Amaierako zenbatekoa, 3.550.550 eurokoa, joan den ekitaldiko superabitaren zati esanguratsua da

Udalak 3.550.550 euroko zenbateko ekonomikoa esleitu du, 2012an hirigintza, turismo eta eraikuntza arloko hainbat lan egiteko. Partida hau joan den ekitaldiko superabitaren zati esanguratsua da eta udalerriko herri-tarren bizi-kalitatea hobetzeko inbertituko da, hauteskunde kanpainan egungo udalbatzari heldu zitzaizkion hainbat eskaerari erantzunez.

Zenbateko horren heren bat hainbat udal sailetan banatuko da, besteak beste, Rigada auzoa, Meatzari plaza eta industrialdea urbanizatzeko lanak egiteko. Gainera, enplegu suntsiketaren eragina murriztu gura da udalerrian, ikastetxeek planteatutako beharrei erantzuna eman nahi zaie, eta udalerraren etorkizunaren plangintzarako azterketak egin.

Partida honen barruan, halaber, alkorkeak (galtzadatutako guneeetan zuhaitzen eta zuhaixken oinarrian uzten diren hutsuneak babes perimetro gisa, ureztatu ahal izateko eta haz daitezen) hobetu eta ordezkatzeko



lanak egingo dira, eta, gainera, haurrentzako jokoak, panelak eta hiri-altzariak jarriko dira.

“Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko inbertituko da

Beste alde batetik, 860.000 euro inguru inbertituko dira udal kiroldegia handitzeko, Udalaren jabetzakoa den pisu bat gaitzeko (ziurrenik, Gizarte Ekintza sailak erabili dezan) edo Muskizko eskubaloi klubak planteatutako beharrezan erantzuna emateko (klub horrek 200 ikasle baino gehiago ditu).

Cendeja kaleko igogailua egitea, Autonomia kaleko patioak eta espaloiak birgaitzea, Muñatonesko gaztelua bisita turistikoetarako prestatzea eta katastroa eguneratzea dira, besteak beste, partida honen kargura egingo diren jardueretako batzuk –aurreikuspenen arabera, ekitaldi honetan izango da–.



Fatxadak birgaitzea

Udalak 40.000 euro bideratuko ditu Muskizko fatxadak birgaitzeko eta etxebizitza kolektiboetako igogailuak instalatzeko laguntzak emateko. “Ahalegin handia eginez”, partida honek ez du murrizketarik izango iazkoaren aldean.

Prestakuntzarako bekak

Muskizko udalak langabertuentzako laguntzak onartu ditu; hain zuzen ere, iraganean prestakuntza ikastaroak utzi ondoren, erdi mailako edo goi mailako prestakuntza ziklo bat egiten ari direnentzat, lan merkatuan sartzeko baldintzak hobetzeko asmoarekin. Hartzaileak herritarrak izango dira, betiere, ekitaldi honetako urtarilaren 1a baino lehen

errolatuta badaude, ikasturte hasieran 23 urte beteta bazi-tuzten, eta erdi mailako edo goi mailako prestakuntza zentro batean matrikulatzeko beharrezkoa den gutxieneko titulazio akademikoa badute.

Beka bakoitzaren gehieneko zenbatekoa mila eurokoa izango da, eta matrikula zein materialak finantzatzeko erabiliko da.

Bisita gidatuak Muñatonesko gaztelura

**Gaztelua,
burdinola eta
Itsaslurreko
pasealekua
bisitatzeko
pakete turistikoa**

Muskiz Muñatonesko gazteluaren instalazioak jendeari irekitzeko baldintzak negoziatzen ari da Foru Aldundiko Ondare Sailarekin. Udalbatzak pakete turistikoa bat sortu nahi du; pakete horretan, eraikin honetarako bisita, El Pobaleko burdinola eta Itsaslur pasealekua sartuko liriteke. Hori guztiori, udalerraren gaitasun turistikoa sustatzeko ekimenen artean.

Proiektua aztertzen ari dira une honetan, eta 10 eta 12 bisita gidatu artean au-



rreikusten dira denboraldi bakoitzeko. Alde batetik, talde euskaldunak egingo liriteke, eta, bestetik, gaztelaniazkoak; goizez izango liriteke, igandeetan, udaberrietik udazkenera. Bisitariak gazteluaren instalazioak eta multzo arkitektoniko honetako harresien barruko aldea bisitatuko lituzkete. Hain zuzen ere, gaztelua Monumentu historiko-artistiko izendatu zuten 1944an, jatorrizko ezaugarrietako asko bere horre-

tan mantentzen dituelako. Aurreikusitakoaren arabera, Muñatonesko gaztelua turisten bisitetarako prestatzeko, hasieran 18.000 euroko inbertsioa egin beharko da. Eraikinaren kanpoko aldea egokituko da, eta, bertan, bulegoak eta komunak izango dituen modulu bat instalatuko da; gainera, informazio-panel bat ere jarriko da. Horretaz gain, dagozkion informazio-liburuxkak argitaratuko dira.



Ekipamendu berria Kiroldegirako

Udalak 9.000 euro inbertitu ditu, Udal Kiroldegia ekipamendu berriaz hornitzeko. Hain zuzen ere, igerileku nagusiaren hodiko barruko hormak garbi mantentzeko, igerilekuaren hondoa garbitzen duen robota erosi du. Horri esker, ura iragazteko eta arazteko sistemarekin batera, komuneko uraren egoera higieniko-sanitarioa ezin hobetu mantenduko da.

Beste alde batetik, Kultura eta Kirol Sailak transferentzia-aulki bat instalatu du Kiroldegian. Garabia mugikorra da eta minusbalotasun fisiko larriren bat duten pertsonak mugitu ahal izango ditu, aldagetatik eta igerilekutik irteten eta igerilekura sartzen laguntzeko.



Areako hondartzako dunak birgaitzeko programa bere horretan mantentzen da

Udalak Areako hondartzako dunak birgaitzeko programarekin jarraituko du. Ekosistema hau jasaten ari den degradazioa arintzeko egin diren ekintzak guztiak oso positiboak izan dira, eta, Udalak gai honetan eskumenik ez duen arren, inguruan instalatutako hesiak eta kartelak birgaitzen eta mantentzen parte hartzea erabaki du.

Egin beharreko lehenengo ekintzak jendea inguru hauskor eta garrantzitsuenetara sartzeko bi-

dea mugatu eta saihesten dituzten itxiturak mantentzea da; horretaz gain, landare inbaditzaile arriskutsuenak kentzeari ekingo zaio. Ekintza bi horien asmoa ekosistema natural honek pairatzen duen degradazioa etetea da. Udalak 2007az geroztik garatzen duen ekintza hau mantendu nahi du, izan ere, "Barbadungo Itsasadarra / Ría de Barbadun" espazioa Natura 2000 Sarearen parte da, Garrantzi Komunitarioko Leku (GKL) gisa.



Herriko trafikoa berrantolatzeko proiektua

Saitec enpresak udalerraren erdiguneko ibilgailuen trafikoa berrantolatzeko, gune gatazkatsuak "lasaitzeko" eta garraio publikorako eta bizikletarako ibilbideak proposatzeko txostena eman dio Udalbatzari.

Proposamenetako batzuk azterketa fasean daude dagoeneko. Adibidez, galtzada goratzea, bide-zorua ordez zimurtsuagoa den beste zoru bat jartzea, eta Fuente Vieja etorbidearen eta Somorrostro Prestakuntza Zentroaren arteko N-634 errepideko bidegurutzean oinezkoentzako zebrabide berria egitea. Neurri honekin, ibilgailuen abiadura

murriztu nahi da, oinezkoentzat erosoago izango den bidegurutzea sortzeaz gain.

Kultur Etxearen eta San Juan elizaren artean oinezkoen segurtasuna eta irisgarritasuna hobetzeko asmoz, beste bi ekintza egingo dira: 29 metroko kanpoko diametroa duen bulebar-biribilgune obalatu bat eraikiko da aipatutako lehenengo eraikinaren parean, eta hiru besoko biribilgunea, Erztaintzaren instalazioen ondoan.

Inguru honetan, gaur egun, oinezkoentzako zebrabiderik ez duen 300 metroko errepidea dago.



Udalak airearen kalitatea aztertu du

Udalak hainbat neurketa egiteko hitzarmena sinatu du erakunde independente batekin; neurketak datorren urtean egingo dira, eta, hain zuzen ere, inmisio-neurketak (airearekin batera lurzorua gainazalean geratzen diren materialak), esekiduran dauden partikulen neurketak eta industria instalazioetatik datozen osagai organikoaren neurketak egiteko asmoa dago.

Ikerketa honek Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak egindako azterketa osatuko du, eta urtean 68.000 euro inguruko inbertsioa beharko du.

Laginketa hauek berriro egiteko arrazoietako bat Petronor birfindegiaren jarduera areagotzearen ondorioz izan den ingurumen-eragina ezagutzea da.

Aurrezkoa paper bilketan

Udalak FCC enpresari esleitu dio birziklapenerako edukiontzietan botatuko paper eta kartoia biltzeko lana. Hasieran, kontratua bost urtekoa izango da, eta urtean, batez beste, mila euro aurreztuko dira, gaur egun indarrean dagoenaren aldean. Esleipenaren azken zenbatekoa 70.000 eurokoa da, BEZ barne.

Konpainia honen proposamenaren araber, gainera, gaur egun dauden 52 edukiontzi urdinen ordez, alboko zamako beste batzuk jarriko dira, Bilboko antzekoak, hain zuzen. Edukiontzi gehiagoz hornitzeko aukera ez da baztertu, batez ere, igoera demografiko azpimarragarria erregistratu dituzten auzoetan. Ekintza hau urria amaitu baino lehen egingo da.

Ekainean amaitu dira Mellorako bidea hobetzeko lanak



Mellora doan bidea egokitzeko lanak amaitu dira. 450 metro lineal inguru asfaltatu dira hormigoizko zolarriaren gainean, eta, horrela, ponpa-guneko bi-hurgunea etzanago geratu da. Gainera, euri-urak kanalizatu dira eta etxebizitzetara doan edateko uraren presioa handitu da.

Lan hauek, guztira, 47.035 euroko inbertsioa izan dute, bai eta %35 inguruko aurrezkoa ere lizitazioaren baldintzarrietan aurreikusitakoaren aldean. Halaber, lanok auzokideen eskaerei erantzuten diete.

EL KAR RIZ KETA

Muskiz Areto Futbola aretoko futbol kluba

Muskiz Areto Futbola 1994. urtean sortu zen eta hainbat kategoriatan gora egin zuen; urte batean, gaur egun Bigarren B maila izenarekin ezagutzen den ligan ere jokatu zuen. Baina ez zen belaunaldi-aldaketarik egon, eta, pixkanaka-pixkanaka, taldea murriztuz joan zen, harik eta 2006. urtean taldea desegin zen arte. 2008an, aurreko etapako hainbat jokalarik ohik batzea erabaki zuten, eta, horrela, Kluba berriro sortu zuten; lehenengo, gizonen senior talde batekin, eta, 2010ean, emakumezkoen talde batekin. Talde biak, hein handi batean, Muskizko neska-mutikoz osatuta daude, denak ere 19 eta 30 urte bitartekoak.

G/ Klubeko gizonen taldeak mailaz igotzea lortu dute, elkarren segidako bigarren urtez. Zein kategoriatan jokatuko duzue datorren urtean nesken eta gizonen talde biek?

E/ Emakumezkoen taldeak Emakumezkoen Lurralde kategorian jokatzen du eta oso ondo ari da; gainera, jokalarik batzuk Bi-



“Gizonen taldeak elkarren segidako kategoria-igoera bi lortu ditu

zkaiko eta Euskadiko selekzioetarako deitu dituzte. Gizonen taldeak, berriz, elkarren segidako igoera biren ondoren, aurreko kategorian Erregional Gorenean jokatuko dute.

G/ Nolako onurak ekarriko dizkiote klubari azken denboraldietako maila-igoerek?

E/ Klubak izango dituen onura bakarrak kirolari dagozkionak izango dira. Kategoria lehiakorragoa da eta, bertan, baloia jokoan dagoenean baino ez du korrituko denborak; arau hori ez da 1. eta 2. erregional mailatan aplikatzen eta, ondorioz, aipatutako mailatan kirol honek bere esentzia galtzen du. Alabaina, badaude desabantailak ere, urteko gastuen igoera kasu, batez ere, epailei dagokienez.

G/ Zeintzuk dira kategoria baxuagotako aretoko futboleko taldeek dituzten erronkak?

E/ Aretoko futbolariek duen arazo nagusietako bat da oso klub gutxi dituztela taldeak kategoria baxuetan. Oso zaila da, batez ere herri txikietan, adin horretako jokalariek lortzea; izan ere, gazte gehienak futbol taldeetan aritzen dira. Halere, etorkizunari begira dugun helburuetako bat oinarriko talde bat sortzea da.

G/ Zuen ustez, zeri zor zaio azken denboraldietako arrakasta?

E/ Gako nagusia entrenamenduak izan dira. Eguneroko lana da helburu horiek lortzera eramaten zaituena, eta, zentzu horretan, gazteek dena eman dute. Aretoko futboleko jokalarien kalitatea ere oso garrantzitsua da. Horretaz gain, lana, ikasteko gogoia, eta, batez ere, neska-mutikoen giza kalitatea hartu behar dira kontuan; horrexegatik sortu dugun hain talde zoragarria, eta horrela egin ahal izan ditugu hain kanpaina bikainenak.

Udako doako jardueren eskaintza zabala

Ekainaren 27tik abuztuaren 17ra, Udalak hainbat programa ludiko eta kirol-programa antolatu ditu 4 eta 12 urte bitarteko herriko umeentzat. Jarraera gehienak Udalak berak ordainduko ditu.

Guztira, 30.000 euro inbertitu dira. Txikienezko jarduerak Meatzari plazan egingo dira, 12 urte bitartekoentzat Kilkerria udal ludotekan, eta nerabezaroa hasi dutenentzat Gaztegunean. Udako herri udalekuei dagokienez, izena ematen duen ume bakoitzak 70 euro ordaindu beharko du, eta Cantarranas ikastetxean eta Muskizko BHI izango dira.



Euskaldundu zure izen-abizenak

Euskara Zerbitzuak aholkuak ematen dizkie euren izenaren edo abizenaren grafia aldatu nahi duten herriko bizilagun guztiei, izen-abizenak euskaraz idatzi ahal izateko. Euskaltzaindiaren web orriaren bitartez, izen propioak nola idatzi behar diren kontsultatu daiteke.

Interesdunek erregistro zibilera eta epaitegira jo beharko dute, eskabide bat bete eta Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia aurkeztu. Horrekin batera, jaiotza-partidaren ziurtagiri literala, errolda ziurtagiria eta Familia Liburua ere aurkeztu behar dira. Eskatzailea adin txikiak bada, gurasoekin joan beharko du, eta, gainera, bere NANA eta errolda-ziurtagiria aurkeztu beharko ditu.